

Nolako laguna zara.mp3

Nolakoak dira zuen lagunak, eta zer-nolako harremana duzue haiekin?

Maidar: Nire lagunak oso jatorrak dira, baina denak ez dira berdinak, jakina! Batzuk alaiagoak dira, berritsuagoak... eta beste batzuk, berriz, isilagoak, arduratsuagoak... Denekin moldatzen naiz nahiko ondo, baina denekin ez daukat harreman berdina. Batzuekin beste batzuekin baino hobeto moldatzen naiz; konfiantza handiagoa daukat. Agian, antzekoagoak garelako eta berdintsu ulertzen dugulako adiskidetasuna.

Asier: Gu, kuadrillan zortzi lagun gara, eta ia denak kirolzaleak. Parranda egitea ere gustatzen zaigu, baina batzuei beste batzuei baino gehiago! Kar-kar-kar! Batzuk oso txantxazaleak dira; beti ari dira txisteak kontatzen, eta beste batzuk, ordea, lotsatiagoak dira, batez ere nesketan! Primeran moldatzen naiz denekin, baina txikitako lagunekin, betiko lagunekin alegia, oso harreman estua daukat; etxeakoak balira bezala.

Lagunak izatea garrantzitsua da zuentzat?

Maidar: Bai, bai, nola ez! Arazoren bat baldin badut, bi lagun min ditut eta haiengana jotzen dut. Eta ona den zerbait gertatzen bazait ere bai, jakina! Bueno, eta haiek ere badakite hor nagoela behar nautenerako!

Asier: Jakina! Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, eta, gainera, gutako norbaitek zerbait behar badu, bada, laguntzen saiatzen gara. Horretarako daude lagunak!

Zer egiten duzue lagunekin?

Maidar: Bada, gauza asko egiten ditugu. Astebururo geratzen gara kalera ateratzeko eta zerbait hartzeko, baina, batzuetan, astegunetan ere gelditzen gara. Gainerakoan, bazkariak edo afariak ere egiten ditugu denok elkarrekin, eta parrandak ere bai. Udan, hondartzan, leku berean jartzen gara beti, eta han elkartzen gara denok.

Asier: Zer egiten dudan lagunekin? Bada, astero, futboleko jokatzeko gelditzen gara eta, ondoren, sagardotegian bazkaltzen dugu. Eta asteburuetan, bada, buelta bat emateko eta zerbait hartzeko gelditzen gara. Gero, festetan elkarrekin ateratzen gara, inauterietan denak berdin mozorrotzen gara. Primeran pasatzen dugu!